



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

2017-2020 AGINTALDIAREN BALANTZEA

www.ehu.eus

AURKIBIDEA

Hitzaurrea.....	03
Errektorearen balantzea Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordean.....	05
Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea	13
Prestakuntza.....	15
Unibertsitate ikertzailea.....	21
Irakaskuntzarekin konprometitutako Unibertsitatea.....	24
Aukera profesionalak eskaintzen dituen Unibertsitatea.....	25
Bizikidetzarako Unibertsitatea	26
Gure inguruan errotutako Unibertsitatea.....	27
Mundura irekitako Unibertsitate bat.....	29
Gizartearekin konprometituriko Unibertsitatea	33
Gobernu ona sustatzen duen Unibertsitatea	35

HITZAURREA

Dokumentu honek Euskal Herriko Unibertsitatean azken lau urteetan egindako lan handiaren lekukotza eskaini nahi du. Errektoretza agintaldi honetan, hainbat emakumek eta gizonek beren irakaskuntza eta ikerketa lanak utzi dituzte albo batera (erabat edo era oso nabarmenean), gure inguruan den unibertsitate konplexu eta handienetako bat gidatzeko. Hiru campusek eta hogeit hamar fakultatek eta eskolek osatutako erakunde akademiko baten kudeaketaz ari gara; egunero-egunero ikastera, eskolak ematera, izapideak bideratzera edo ikertzerara doazen milaka pertsona hartzen dituen erakunde baten kudeaketaz.

Argitalpen honetan, lan eskerga horren emaitza jaso nahi dugu, laburbilduta. Eta hala egin nahi dugu, gainera, agintaldi honetan Euskal Herriko Unibertsitatearen buru egon garen pertsonen lan hori gure ikasleen, administrazio eta zerbitzu-taldeen langileen eta irakasle-ikertzaileen lanarekin uztartu izanaren kontzientziatik. Pertsona horiek guztiek, bakoitzak bere erantzukizunetik, UPV/EHU-n azken urteetan izandako aurrerapen esanguratsuen egiletzat har dezakete beren burua.

Horien berri ematea bada ere gure erakundearen memoriari beste pieza bat gehitzea; izan ere, sortu zela mende erdia igaro den honetan, munduko 400 unibertsitate onenen artean dago, Shanghaiko sailkapenaren arabera, eta ezinbesteko zerbitzu bat eskaintzen dio oraindik ere euskal gizarteari irakaskuntzaren, ikerketaren eta jakintzaren transferentzia bidez.

Dokumentu hau bederatzi multzo tematikotan banatu dugu. Multzo bakoitza 2016. urte amaierako hauteskunde prozesuan oraingo taldeak aurkeztu zuen programaren atal bati dagokio.



Lehen bi ataletan unibertsitatearen muina osatzen duten bi misioak jasotzen ditugu: prestakuntza eta ikerketa. Prestakuntzaren atalean, graduako eta graduondokoen kalitatezko eskaintzaren igoera, titulu bikoitzen eta prestakuntza dualaren aldeko erronka, eta zeharkako gaitasunen bultzada erakusten dugu. Ikerketan, berriz, jakintzaren sorrerari dagokionez igoera nabarmena izan dugu emaitzetan, bai proiektu lehiakorren bidez eskuratutako funtsen aldetik, bai doktorego tesien bidez eta nazioartean argitaratutako artikulu prestigiotsuen aldetik. Bereziki nabarmendu nahi dugu talentua erakartzeko eginiko ahalegina; horri esker, gure unibertsitateak bi Nobel saridun kontratatu ditu lehenengoz. Bestalde, inguruko enpresei, administrazioei eta elkarteei jakintza transferitzeko jarduna nola finkatu den ikusteko aukera izan dugu.

Hirugarren atalean, irakaskuntzarekin izandako konpromisoaren berri ematen dugu; horren harira, masterrak ikastegietara eramane ditugu, ikasleek prestakuntza ibilbide koherenteak egin ditzaten, eta irakaslanaren ebaluazioa bultzatu dugu. Hurrengo multzoan, unibertsitateko langileei benetako aukerak eskaintzeko egindako ahalegina aipatzen dugu. Hala, irakasle-ikertzaileen eta administrazio eta zerbitzuetako langileen ibilbide profesionala bultzatu dugu, eta lana egin dugu ere belaunaldien arteko aldaketa eta enpleguaren egonkortasuna errazteko.

Unibertsitatea gizakien gune bat da guretzat, eta bertan, ikasi, prestatu, kudeatu eta ikertu ez ezik, bizi ere egin behar dugu, guztiok elkarrekin. Hori dela eta, bosgarren multzoan jasota dauden ekintzen bidez, azpiegiturak egokitu, kultura jarduerak bultzatu eta inguruarekiko gizarte harremanak areagotu ditugu, eta campus jasangarriak sortzeko estrategia bat sustatu dugu.

Seigarren atalean, UPV/EHUK euskal kulturarekin eta euskararekin duen konpromisoa izan dugu hizpide. Arlo horretan, arlo akademiko zurrunetan ez ezik, aurrerapen bikainak eman dira ere gizarte bizitzan.

Zazpigarren multzoan, gure unibertsitatea mundura irekitzeko xedea duten ekintzak bildu ditugu. Hala, unibertsitateak leku paregabea betetzen du orain Shanghaiko sailkapenean, Europako unibertsitateen Enlight partzuergoan parte hartu du, eta aliantza estrategikoak sendotu ditu Bordeleko Unibertsitatearekin eta Graduondokoen Latinoamerikako Sarearekin.

Dokumentu honen zortzigarren atalean gure unibertsitate identitatearen elementu nagusietako bat dugu: izan ere, gizartearekin konprometitutako erakunde bat gara. Horregatik, ekintzen sorta zabal bat jarri dugu martxan arlo hauetan: kolektibo kaltetueneren inklusioa, dibertsitate funtzionala duten ikasleen arreta, eta genero berdintasuna lortzeko politika ausarten garapena.

Amaitzeko, bederatzigarren atalean, UPV/EHUK gobernu ona bultzatzeko egindako esfortzuaren berri ematen dugu; arlo horretan, e-administrazioa indartu, eta kontabilitate analitikoa ezarri dugu.

Ezin dut ezkutatu satisfazioa dagoela gure artean egindako lan guztiagatik, baina ziurtatzen dizuet ez dagoela konplazentzia ale bakar bat ere. Lan kolektibo batez ari gara: horregatik, hurrengo etapetan, komunitate hau osatzen dugun pertsona guztiok guztia ematen jarraitu behar dugu, askotariko funtzioak eta askotariko erantzukizunak betez, baina gure unibertsitatearentzako eta egunero zerbitzatzen dugun gizartearentzako onenaren bila beti.



Nekane Balluerka Lasa
UPV/EHUKo errektorea

ERREKTOREAREN BALANTZEA EUSKO LEGEBILTZARREKO HEZKUNTZA BATZORDEAN

Eskerrak eman nahi dizkiot Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordeari gure agerraldi eskaera onartzeagatik. Jakinaenez, Euskal Herriko Unibertsitateak beti erantzun dizkio erakunde honek, euskal gizartearen ordezkaritza gorenak, egindako eskaerei. Era berean, agerraldi bat eskatu nahi izan dugu errektoretzaren agintaldia amaitzear den honetan, gure betebeharra baita egindako lanaren berri ematea euskal gizarteari eta haren ordezkariari. Gure baliabideen zatirik handiena aurrekontu publikotik dator eta, autonomia akademikoa eta kudeaketakoa eskatzen dugun modu berean, egindako jardueraren aurrean erantzuteko konpromisoa ere sentitzen dugu. Gaurko agerraldi hau, beraz, euskal gizartearekin eta haren erakundeekin dugun konpromisoaren ondorioa da.

Azalpen hau, ordea, jasaten ari garen osasun eta gizarte egoerak baldintzatzen du. COVID-19aren pandemiak eragin handia izan du gure bizitzaren alderdi guztietan eta bizitza akademikoa ez da izan, jakina, salbuespen bat. Edonola ere, gai hori nire mintzaldiaren azken atalean aipatuko dut; hori baino lehen, Euskal Herriko Unibertsitateak 2017-2020 agintaldian egindako lanaren berri emango dut, gaiez gai.

IRAKASKUNTZA

Irakaskuntza arloan, ahalegin handia egin dugu gizarte globalizatu, dinamiko eta aldakor batera egokitzeko. Unibertsitatearen betebeharra da, zalantzarik gabe, unean uneko behar akademikoei erantzutea, baina aurre hartu behar die ere, ahal duen neurrian, etorkizuneko premiei. Horrek esan nahi du eskaintza akademiko eta hezkuntza eredu malguak eta arinak diseinatu behar dituela, abiadura handian eboluzionatzen ari den gizarte baten erronkei

erantzuteko gai izango diren profesionalak prestatu nahi dituelako.

Zentzu horretan, gure helburuetako bat gure eskaintza akademikoaren bikaintasuna areagotzea izan da. Areagotu esan dut, haren zati handi bat bikaina zelako lehendik ere; alabaina, ezingo genuke esan atzo hobetu zitezkeen arloak ez zeudenik, ezta gaur egun ez daudenik ere.

Gai askoren aipamen telegrafikoa egingo dut, epigrafe honen barruan, baina aipamen zehatz horien atzean ehunka pertsonaren lan eskerga dagoela jakitun izanda betiere: irakasle-ikertzaileak, administrazio eta zerbitzuetako langileak eta, haien ondoan, hezkuntza ahalegin honen azken jomuga diren milaka ikasle.

Talde honek zuzendaritza bereganatu zuenean, UPV/EHUK bi master zituen, Erasmus Mundus kalifikazioarekin. Dakizuenez, kalifikazio hori jasotzen duen master bat nazioarteko goi mailako ikasketa programatzat hartzen da Europar Batasunean; programa bat, hainbat herrialdetako unibertsitateen partzuergo batek ematen duena. Ikasturte honetan horrelako zortzi master eskaintzen ari gara; hori dela eta, zigilu hori duten graduondoko gehien dituzten estatuko unibertsitateen taldean gaude.

Bikaintasunaren aldeko bokazioa, nazioartekoari lotuta, euskal gizarteak arlo profesional guztietan orain eta etorkizunean izango dituen beharrei emandako erantzunarekin uztartzen da. Horregatik bultzatu ditugu ere titulu bikoitzak; izan ere, 2016-2017 ikasturtean bi eskaintzen genituen eta, aurtengo ikasturtean, berriz, hamabi. Horien artean, ingelesez osorik ematen den lehen titulu bikoitza dugula azpimarratu behar da.

Prestakuntza dualaren aldeko apustu garbia

egin dugu. Prestakuntza aukera paregabea ematen duen irakaskuntza modu bat da, lan jarduna eta prestakuntza akademikoa uztartzen baititu. Prozesu eta Produktuen Berrikuntzaren Ingeniaritzako Gradua, gure unibertsitatearen ikastegi atxiki den Makina Erremintaren Institutuan ematen dena, aitzindaria izan zen estatuan modalitate horretan. Azken lau urteetan prestakuntza dualeko hamalau titulu gehiago jarri ditugu martxan. Badakigu eredu hori ezin dela diziplina guztietara zabaldu eta Automobilgintzaren Ingeniaritzako gradu dual batek, esate baterako, sekulako ahalmena duela, baina beste unibertsitate arlo batzuk ezin direla eredu horretara automatikoki egokitu; edonola ere, uste dugu oraindik beste jakintza arlo batzuetara zabaltzeko tartea dugula. Horixe da, gure aldetik, irakaskuntzaren arloan egin dugun apustu handienetako bat, nazioartean bikainak diren unibertsitateak egiten ari direnarekin bat etorritu.

Irakaskuntzaren arloarekin jarraituta, lau titulu berri ezarri ditugu (azkenekoa, Adimen Artifizialeko Gradua), eta bi zentro berri atxiki ditugu: Goi Mailako Online Institutua eta Elías Querejeta Zine Eskola. Horri dagokionez, aipatu nahiko nuke, eskaintza zabaltzearekin batera, arlo intelektual berrietara iritsi garela, jarduera berrietara. Gure unibertsitatearen eta gure proiektu akademikoaren jarrera ireki eta jakin-minez betearen adibide argia da zinema.

Eskaintza hori osatzeko, zeharkako gaitasunen gaineko prestakuntza ikastaroen katalogo zabal bat dugu. UPV/EHUren uste sendoa da prestakuntza ez dela bakarrik jakintza transmititzea; izan ere, beste era bateko gaitasunak ere transmititu behar dira, hala nola lan ohiturak, trebetasun emozionalak eta, jakina, balio etikoak. Agintaldi honetan arreta berezia eskaini nahi izan diogu alderdi horri. Ikastaro horien bidez, hiru campusetan lehenengoz antolatutako enplegu foruekin batera, gure ikasleen enplegarritasuna hobetu nahi dugu, eta etengabe aldatzen ari den merkatu laboral eta profesional batera egokitu nahi ditugu. Azken bi edizioetara 255 inguru enpresa joan dira, eta ia 850 lanpostu eskaini dituzte.

Berezko tituluen arloan (titulu horiek, dakizuenez, bizitza osoko prestakuntzari lotutako graduondokoak dira), igoera esanguratsua izan da, emandako berezko tituluen kopurua % 74 hazi baita.

Enplegarritasuna bultzatzeari dagokionez, Praktika eta Enplegarritasun Unitatearen sorrera nabarmendu behar da. Unitateak laguntza logistikoa ematen die fakultateei

eta eskolei, gure unibertsitateko ikasleek eginiko curriculumeko nahiz borondatezko praktiken kudeaketan. Azken 4 urteetan, enpresa kolaboratzaileen kopurua % 24 igo da, eta horrek gure ikasleek ikasturte bakoitzean egiten dituzten 11.000 praktiken dibertsifikazioa ahalbidetu du. Enplegu zifrei dagokienez, egiaztatu dezakegu orain dela gutxira arte UPV/EHUko ikasle egresatuek % 90eko okupazio tasa bat zutela eta zenbait diziplinatan enplegu osotik gertu zeudela. Pentsatzekoa denez, alarma egoerak ekarritako konfinamenduaren aurreko egoera bati buruz ari gara.

Prestakuntza eskaintzak hobera egin du bikaintasunean, nazioartekotzean, dinamismoan eta gizarte beharrei erantzuteko gaitasunean. Gure ikasleen ikaskuntzak hartu beharko lukeen orientazioari buruzko gogoeta sakon baten ondoren, gure hezkuntza eredu birdefinitu dugu, UPV/EHUren lidergoa sendotzeko eta euskal gizarteari kalitate goreneko unibertsitate hezkuntza bat eskaintzeko. Hori guztia IKD i3 hezkuntza ereduaren babespean, gure eskaintza akademikoa identifikatzen (eta indibidualizatzen) duen ezaugarrietako bat. Dakizuenez, IKD i3 ereduaren oinarria ikerketa eta garapen jasangarriaren helburuak irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan integratzean datza.

Prestakuntzaren atal hau amaitzeko, pertsonalki esan nahi dut nire ustez matrikula kopuruaren igoerak ez duela izan behar unibertsitatearen lehentasunezko helburu bat. Are gutxiago gurea bezalako herrialde batean, non azken hamarkadetan jaiotza indizeek beherako joera izan duten; edonola ere, graduoko lehen mailan matrikula kopuruan izandako igoera ere azpimarratu nahiko nuke. Hala, azken ikasturteetan, % 10 igo da (7.712tik 8.509ra). Eta izen emateetan izandako igoerei erreparatzen badiegu, hor ikusten baita unibertsitate baten erakartzeko gaitasuna, portzentaje hori % 14ra iristen da. Masterren kasuan, lehen mailako matrikulak % 22 igo dira.

IKERKETA

Ikerketa dugu UPV/EHUren jardueraren oinarrian –eta identitatearen muinean– dagoen zutabe nagusietako bat.

2019-2022 aldirako Ikerketa Planaren testuinguruan, proiektu handiak sustatzeko diziplina anitzeko deialdi berriak diseinatu ditugu, beste erakunde eta enpresa batzuen lankidetzaz. Belaunaldi aldaketarako

erraztasunak eman ditugu, pertsona berriak ikertzaile nagusi gisa sartuz ikertalde finkatu askotan. Eta ikertzaile gazteei laguntzeko neurriak hartu ditugu.

Neurri horien guztien helburua unibertsitatean lanean ari den talentua zaintzea da, eta hori ez da eragozpen bat, era berean, kanpoko talentua erakarri ahal izateko. Uste dut bi zeregin horiek elkarren osagarriak direla eta elkar indartzen dutela: kanpoko talentua erakartzea estimulu bat da bertako talentuak garapen onena lor dezan, eta aldi berean gure talentua zaintzen badugu, UPV/EHU erakunde erakargarriago bat bilakatzen da kanpoko talentuarentzat. Horretarako, lankidetzaz estuan jardun dugu Ikerbasquerekin eta gure inguruko bikaintasun zentroekin (BERC guneak). Politika horren emaitza ikusgarriena, sendoena, baina inondik ere ez bakarra, Albert Fert fisikari frantziarraren kontratazioa izan da, Donostiako International Physics Center-en lankidetzaz, UPV/EHUk bere historian kontratatu duen lehen Nobel sariduna; haren atzetik, orain dela egun gutxi, hau ere DIPCrekin batera, George F. Smoot kontratatu dugu, Fisikako Nobel sariduna. Ziurtatzen dizuet albiste horrek sekulako garrantzi akademikoa duela, estatuko gainerako unibertsitateen artetik nabarmentzen gaituelako eta gure nazioarteko ospea parametro guztiz bestelakoetan jartzen duelako.

Bikaintasuna lortu nahi duen unibertsitate batek nazioarteko proiektzioa izango duen lehen mailako ikerketa garatzeko helburua eduki behar du ezinbestean. Hasieran esan dudan moduan, ikerketa gure jardueraren zutabe bat ez ezik, gure identitatearen muina ere bada. Gaur-gaurkoz, UPV/EHUk ikerketaren bidez urtean 55 milioi euro inguru erakartzen ditu. Azken urteetan, Horizon2020 Europako programan izan dugun parte hartzeak 24 milioi euro inguruko itzulera bolumena lortu du. Horien artetik, 17 milioi baino gehiago (emandako 84 proiektuetatik 63) Bikaintasun Zutabea izenekoari dagozkio, zeina plan beraren barruan jasota baitago. Zutabe horren barruan daude, halaber, azken lau urteetan lortu ditugun Europako Ikerketa Kontseiluaren (ERC) bost proiektu prestigiotsuak: 5,53 milioi euroko itzulera ekarri dute. Azpimarratzekoa da H2020ren Gizarte Erronken Zutabea programan lortutako igoera handia: 2014-2016ko urtealdian, proiektu bakarra genuen; azken lau urteetan, hamaika garatu dira. Bestalde, lidergo femeninoa bultzatzeko gure ahalegina fruituak ematen hasita dago: Gizarte Erronken Zutabe horretan bertan, emakumeek proiektuen % 58 lideratu dituzte.

Argitalpen zientifikoaren arloan (hori da, jakingo duzue, unibertsitate ikerketaren adierazle nagusietako bat, ikerketa ororen emaitza, azken batean, nazioarteko argitalpen zientifiko batean objetibatzen baita), bada, nioen moduan, argitalpenen arloan, azken lau urteetan Web of Science webgunean indexatutako artikuluen kopurua % 34 igo da. Hala, 2019. urtean 3.800 argitalpenen langa gauditu genuen, eta horien % 55 lehen kuartilean zeuden; hau da, dena delako jakintza arloan prestigio handieneko aldizkarietara erreserbatutako espazioan.

Eman ta Zabal Zazu gure lemarekin leialtasunez jokatu, sarbide irekiko politika bat bultzatu dugu argitalpenetan. Zehazki, 2017. urtearen hasieran 7.169 artikulua genituen eta gaur-gaurkoz 19.497 ditugu, eta horri esker, UPV/EHUren gordailua 280. postuan kokatu da mundu osoko unibertsitateen artean. Elementu hori, beste batzuekin batera, lagungarria izan zaigu 100 postu igotzeko eta munduko 400 unibertsitate onenen artean kokatzeko, Shanghaiko sailkapen entzutetsuaren arabera. Sailkapen hori, nazioarteko aitortza izateaz gainera, ebaluazio irizpide errespetatu eta enblematikoenetako bat da unibertsitateen munduan.

Jakintza arloen araberrako sailkapen espezifikoa, UPV/EHU 51-75eko tartean dago munduko unibertsitateen artean, Ingeniaritza Kimikoaren arloan, eta gainera, estatuko lehena da arlo horretan. Leku nabarmena du ere Nanozientzia eta Nanoteknologian, Kimikan, eta Ingeniaritza Metalurgikoan, diziplina horietan munduko unibertsitateen 101-150eko tartean kokatzen baita. Energiaren Zientzia eta Ingeniaritza eta Materialen Zientzia eta Ingeniaritza, berriz, munduko unibertsitateen 151-200eko tartean dago, UPV/EHU. Amaitzeko, UPV/EHU munduko sailkapenaren 201-300eko tartean dugu arlo hauetan: Matematika, Fisika, Farmazia eta Zientzia Farmazeutikoak, Nekazaritzaren Zientziak, eta Komunikazioa.

Batzuetan zaila da eskaintzen ditugun kopuru horien benetako esanahiaz guztiz jabetzea. Zer esan nahi du munduko 400 unibertsitate onenen artean egoteak? Joan den urtean 500 onenen artean ginen. Hortaz, tarte bat egin dugu gora, sailkapen horretan. Baina, zein da posizio horren dimentsio erreala? Agian, horretaz jabetzeko, aintzat hartu behar dugu munduan 20.000 unibertsitate eta goi mailako hezkuntza erakunde daudela; berriro diot: 20.000. Bada, 400 onenen artean egoteak (eta tarte batzuetan, esan dudanez, zerrenda pribilegiatu horren azken 100ak parean daude) munduko unibertsitateen % 2 onenen artean gaudela esan nahi du.

Horrek ez du esan nahi bakarrik kirol sailkapen moduko batean postu gutxi-asko on bat izatea: ondorio erabakigarriak dauzka nazioarteko unibertsitate eremuan. Mundu osoko unibertsitateekin harremanak, hala instituzionalak nola zientifikoak, ezartzeko aukera izan dut, eta zera ziurta dezaket, Shangaiko sailkapenean posizio on bat mantentzeak edo bertan ez egoteak modu erabakigarrian baldintzatzen duela beste unibertsitate batzuekin lankidetzak izateko aukerak, zirkunstantzia horrek dakarren ospeari lotuta. Badakit Euskal Herriko Unibertsitatean sailkapen horien garrantzia behin eta berriro aipatzen dugula, eta hala egiten dugu, hain zuzen, bertatik bertara ezagutzen ditugulako sailkapen horren posizio batean edo bestean egoteak nazioarteko unibertsitateen esparruan dituen ondorioak. Eta ez bakarrik, nioen moduan, harreman instituzionalak edo lankidetzak zientifikoak ezartzeko aukera ematen duelako, baizik eta sailkapen horretan posizio on bat izateak unibertsitate baten nazioarteko ospea zehazten duelako eta, hortaz, aldi berean unibertsitate horretan ikasleek lortutako tituluen ospea bermatzen duelako. Azken batean, ikasleak dira hobekuntza horren onuradun nagusiak.

Bestalde, Center for World University Rankings-ek (CWUR), munduko sailkapen garrantzitsuenetako batek, munduko sailkapenaren 358. posizioan kokatu du UPV/EHU, 2020. urtean.

JAKINTZAREN TRANSFERENTZIA

Ikerketari estuki lotuta, baina harago doan jarduera bat garatuta eta gizartean zuzenean proiektatuta, jakintzaren transferentzia dugu.

Arlo horretan gure unibertsitatea etengabeko ahaleginean ari da. Azken urteetan, % 50 igo dira bai sinatutako transferentzia kontratuak, bai kontzeptu horretan lortutako sarrerak. Nabarmendu behar da 2019an (eta urte horri dagokion kopurua ematen dut, oraindik amaitu ez den 2020ko ekitaldia anomaloa izan delako guztiok ezagutzen ditugun arrazoiengatik) 1.250 kontratu sinatu genituela 681 enpresa, administrazio eta irabazi asmorik gabeko erakundeekin, eta 11,55 milioi euroko itzulera jaso genuela I+Gn eta zerbitzu teknologikoetan. Lehenetsuneko patenteen urteko ekoizpena bikoiztu egin da, eta agintaldiaren amaieran urtean 22 patente baino gehiago sinatu dira; unibertsitatean sortutako teknologiak

ustiatzeko lizentzia bidezko transferentzia, berriz, laukoiztu da; eta, azkenik, urtean oinarri teknologikoko bost enpresa sortu ditugu batez beste.

Era berean, lehendik zeuden 6 unibertsitate-enpresa ikasgelak finkatzen lagundu dugu, eta 15 ikasgela gehiago bultzatu ditugu, tartean lehen ikasgela teknologikoa: UPV/EHU-Tecnalia. Bestalde, agintaldi honetan, ikertaldeetatik kontratu eta lizentzien bitartez egindako ekintzailtza ohiko jarduera bihurtu da, eta orain ikerketa emaitzak merkatura transferitzeko aukera sendo bat da.

Dibulgazio zientifikoa jakintza transferitzeko beste modu bat da. Jarduera hori orain dela gutxi sortu da unibertsitatean (tradizionalenekin alderatuta behintzat), eta UPV/EHU bere inguruko gizartearekin harremanetan jartzeko tresna eraginkorretako bat da gaur-gaurkoz.

Zientzia Astea tamaina bikoiztu arte handitu da azken urteetan, eta Euskadiko gazteen artean STEAM diziplinak bultzatzeko ekimen nagusia dugu egun. Ekimen horrek, eta horrekin batera Kultura Zientifikoko Katedran egindako lan handiak, Udako Ikastaroek eta hedabideetan gure akademikoek etengabe eginiko agerraldiek zientziaren dibulgazioa UPV/EHUren nortasunaren ikur bilakatu dute.

Testuinguru ekonomiko eta sanitario benetan zailean gauden arren, hiru zientzia azpiegitura handi jarri ditugu martxan: Micaela Portilla, Martina Casiano eta Maria Goyri zentroak. Era berean, PharmaLabs 4.0 laborategiak sortu ditugu, eta 2017an inauguratutako Aeronautikako Fabrikazio Aurreratuko Zentroa finkatu dugu. Bertan, 85 enpresa bazkide ditugu, eta I+G+Bko 95 proiektu garatu ditugu, aurtengo lehen seihilekoa bakarrik aintzat hartuta. Horrez gain, Hizketaren Teknologien Zentroa (HITZ) jarri dugu martxan, eta zeregin oso garrantzitsua beteko du Euskadiko adimen artifizialaren garapenean.

NAZIOARTEKOTZEA ETA EUSKAL KULTURA

Beste arlo bat, irakaskuntzaz eta ikerketaz mintzatzean dagoeneko aipatu dudana baina orain astiro aztertuko dudana, nazioartekotzearena da. Gaiari ikuspegi dialektiko batetik heldu nahi diot, gainera, eta erlazioan jarri nahi dut Euskal Herriko Unibertsitate gisa bereizten gaituen identitate kultural eta akademikoarekin. Izan ere,

XXI. mendeko unibertsitateak identitate eta mestizaje konbinazio emankor bat izan behar du, adarren eta erroen konbinazio bat: mundura irekita eta kultura batean errotuta. Nire ustez, UPV/EHU, proiektu akademiko gisa, leiala zaio gure logotipoan adierazita dagoen ikuspegi ireki horri.

Gure unibertsitatea, gaur egun, Prestakuntza Nazioartekotzeko Plana garatzen ari da, 2018-2022 urtealdirako.

Nazioarteko titulu bikoitzen eskaintza areagotu dugu, eta orain graduako 5 titulu bikoitz eta masterreko 10 titulu bikoitz berri gehiago ditugu. Nazioarteko titulu bikoitza bi unibertsitatearen artean –bat bertakoa eta bestea atzerrikoa– adostutako prestakuntza programa batean datza, eta hura gainditu eta dagokion kredituen aitortza jaso ondoren, ikasleek graduako edo graduondoko bi unibertsitate titulu eskuratzen ditu, unibertsitate bakoitzetik bat.

Gaur egun, graduako 841 irakasgai ematen ditugu hizkuntza ez-ofizialean; horien artetik, 633 ingelesez. Azken lau urteetan, % 25 baino gehiago handitu da hizkuntza horretan emandako graduako nahiz masterreko irakasgaien kopurua.

Bestalde, pandemia gorabehera, kanpora joandako ikasleen mugikortasuna % 13 igo da, eta etorritakoen mugikortasunak, berriz, % 6 egin du gora. Hala, gure ikasleen % 22k baino gehiagok nazioarteko esperientziaren batean parte hartu dute, eta modu horretan Europako Batasunak 2020. urterako ezarritu zuen % 20ko helburua aurreikusi baino askoz lehenago gainditu dugu. Era berean, gogotik egin dugu lan Graduondokoen Latinoamerikako Sarean, eta Bordeleko Unibertsitatearekin batera ezarritako mugaz gaindiko Euroeskualdeko Campusa ere sendotu dugu, joan den ikasturtean UPV/EHUko kideen inplikazioa sekula baino handiagoa izan baitzen.

Aipatu nahi dut deialdi gogor eta lehiakor batean 5 milioi euroko babesa lortu dugula ENLIGHTerako, Europako unibertsitateen partzuergo bat, unibertsitate hezkuntzan diharduten maila handiko beste zortzi erakunderekin batera sortu duguna. Hain zuzen ere, erakunde horien artetik, sei unibertsitate munduko 400 unibertsitate onenen artean daude, gurea bezala, eta hiru, lehenengo 66ren artean, Shanghaiko sailkapenaren arabera.

ENLIGHTeko bederatzi unibertsitateek hezkuntza, ikerketa eta berrikuntza agenda bat partekatzen dugu, etorkizuneko gizarte ongizate eta jasangarritasunerako giltzarriak

diren bost erronketan oinarritzen dena. Erronka horiek Nazio Batuen garapen jasangarriarako 17 helburuetatik (GJH) 10i lotuta daude gutxienez, eta arlo hauetan gauzatuko dira: osasuna eta ongizatea; iraultza digitala eta digitalizazioaren inpaktua; klima aldaketa; energiaren erabilera eta ekonomia zirkularra; eta, amaitzeko, ekitatea.

Nazioartekotzean ahalegintzearekin batera, UPV/EHUK euskara eta euskal kulturarekin duen konpromisoari eusten dio. Graduak nahitaezko irakasgaien % 98 euskaraz ematen dira, 2017an baino lau puntu gehiago. Euskaraz emandako berezko tituluen lehengo kopurua halako hiru ematen dira orain, eta % 6 egin dute gora gure hizkuntzan egindako doktorego tesiek. Euskaraz egindako doktorego tesien artean, erdiak baino gehiago nazioartekoak dira. Horrek erakusten du, beste ezerk baino hobeto, global-lokal binomioa gure identitatearen muina dela; alegia, konprometitua euskal kulturarekin eta aldi berean irekia gainerako kulturetara.

Lau ikasturte hauetan, UPV/EHUko ikertzaileek 500 artikulua zientifiko baino gehiago argitaratu dituzte euskarazko aldizkari zientifikoetan. "Doktore Euskaldunak" datu basea martxan jarri da, eta jakintza arlo askotako 700 doktorek eman dute izena bertan. Era berean, azken lau urteetan, ia 300 unibertsitate testuliburu eta 60 material didaktiko inguru argitaratu ditugu euskaraz; horien artean, Hiztegi Juridikoa nabarmentzen da, hala irakaskuntzan nola jarduera profesionalean izango duen eraginagatik.

Euskaraz emandako irakaskuntza sendotzeari begira, gaur egun irakasle-ikertzaileen % 61ek gaztelania-euskara profil elebiduna duen plazaren bat betetzen dute, agintaldiaren hasieran baino 5 puntu gehiago.

GIZARTE POLITIKAK

Gizarte politikek beste zutabe bat osatzen dute, talde honek partaidetza metodologia batez agintaldi honetarako diseinatu zuen Plan Estrategikoan; dena den, partaidetza ez da berria, UPV/EHUren politika unibertsitarioan. Gure ustez, unibertsitate publikoaren izaera ez da estatus juridiko edo administratibo huts bat: balio jakin batzuk barneratzea eskatzen duen izaera bat ere bada. Hortaz, UPV/EHU ez da definitzen soilik erakusten eta ikertzen duelako, baizik eta ikuspegi integratzaile batetik lan egiten duelako, gizarte beharrei eta kolektibo kaltetuenei adi erreparatuta.

Arlo honetan egindako ekintza espezifikoak zerrendatzeak luze joko luke. III. Berdintasun Planarekin batera, ekimen zehatz ugari jarri dira martxan, eta horien artean genero indarkerien aurkako protokolo espezifiko baten elaborazioa nabarmenduko nuke. EHU Agenda 2030 planak Garapen Jasangarriaren Helburuak sartu ditu gure irakaskuntza, kudeaketa eta ikerketa eremuan. Uste dut UPV/EHUk oso politika aktiboa izan duela zentzu horretan, eta, gure testuinguru instituzionalean, inklusio eta feminismo politiken erreferente bilakatu da Euskadin.

Are gehiago, esango nuke arlo horretan gure ekintzaren erreferentzialtasunak baduela nolabaiteko aintzatespena nazioartean. Nazioarteko sailkapenetara itzuliko naiz orain, aipamen bakar bat egiteko: UPV/EHUk The Times Higher Education Unibertsitate Inpaktuko Sailkapenean parte hartu du lehenengoz. Sailkapen horretan unibertsitateek Garapen Jasangarriko Helburuei lotuta egiten duten lana ebaluatzen da. Times Higher Education sailkapena oso irizpide eztabaidagarrien gainean eratzen da (adibidez, haren finantzaketaren zati bat unibertsitate batzuek emandako funtsen bidez egiten da), baina horrek are balio handiagoa ematen dio; izan ere, akordio horien parte izan gabe eta ebaluazioan parte hartzen duen lehen aldirian, UPV/EHU 101-200ko tartean kokatu da, sailkapen globalean. Horrez gain, munduko 49 erakunde onenen artean dago genero berdintasunari dagokionez, eta 59 onenen artean, produkzio eta kontsumo arduratsuen arloan. Gorago aipatu dudan moduan, sailkapen hori oso eztabaidagarria da, eta ez dut uste aurrera egin dezakegunik aipatu ditudan akordio horietan sartu gabe, eta, jakina, UPV/EHUk –ezta, nire ustez, inongo unibertsitateak ere– ez luke sekula parte hartu beharko horrelako akordioetan.

Gizarte politiketik, atal honen hasieran nioen moduan, norabide askotara bideratzen dute beren lana. Hala, III. Inklusio Plana unibertsitateak arlo horretan egindako lana zabaltzea ekarri du: aurreko bi planen fokua ezgaitasunak dituzten pertsonen kolektiboarengan jarri bazen ere, oraingoan arrazoi sozioekonomikoak eta generokoak direla eta kalteberak diren beste kolektibo batzuetara hedatu dugu ekintza inklusiboa.

Bestalde, unibertsitatean arrakasta akademikoa lortzeko Arrakasta programa, zeina foru diputazioen laguntzari esker garatzen baita, ekimen aitzindari bat da, eta horren bidez baldintza egokiak sortu nahi dira, haurtzarora eta nerabezarora babesteko eta gizarte

inklusioko harrera sistemetan dauden gazteak unibertsitateara sartu, eta goi mailako ikasketak arrakastaz egiteko aukera izan dezaten. Programaren garapena ona izaten ari da, eta oso testuinguru konplexuetan diren pertsonen arreta eraginkorra eman die, unibertsitateara joateko eta beren balioa erakusteko aukera ematen baitie. Gaur-gaurkoz 19 ikasle daude.

Eta atal hau amaitzeko, bi ekimen aipatuko ditut, kopurutan ziur asko kolektibo txikiengan eragiten dutenak, alabaina bultzatzen dituzten balioetan nabarmentzen direnak. Lehena, IkasLagun programa Gipuzkoako Campusean garatzen ari dena, horren bidez, UPV/EHUko ikasle boluntarioek errefortzu akademikoa eskaintzen diete lurraldeko babes sistemaren barruan arreta eta zaintza jasotzen duten haurrei. Bigarrenik aipatzekoa da UPV/EHUk matrikula ordaintzetik salbuetsita daudela 2018-2019 ikasturteaz geroztik asiloa eskatzen duten, nazioarteko babesaren edo aberrigabe diren pertsonak. Euskal Herriko Unibertsitatea da gaur egun estatuan aukera hori eskaintzen duen unibertsitate bakarra.

LEPa ETA AZPIEGITURAK

Gizarte politiken ondoren, eta amaitu aurretik, beste gai batzuk aipatuko ditut, labor bada ere.

Errektoretza talde honek, agintaldi honetan, gure langileak zaindu, eta haien lan baldintzak hobetu nahi izan ditu. Gure erakundea bultzatzen duten balioen artean, guretzat, giza kapitala da, inolako zalantzarik gabe, unibertsitateko kapitalik garrantzitsuena. Pertsonen alde egitea unibertsitatearen alde egitea da. 2017. urteaz geroztik egindako lan eskaintza publikoetan, 477 plaza finkatu dira ikertzaile-irakasleentzat, eta beste 77, administrazio eta zerbitzuetako langileentzat. Nabarmentzekoa da, 2018an, 38 plazako lan eskaintza publiko bat onartu zela, eta 2019an, 635 plazako beste bat, administrazio eta zerbitzuetako langileentzat, AZPko langileen kolektiboarentzat UPV/EHUk inoiz egin den eskaintzarik handiena.

Lan eskaintza publiko horien guztien emaitzak, abian den lekualdatze lehiaketaren emaitzarekin batera, aldi baterakoak edo bitartekoak diren langileen oraingo portzentajea zentzuzko mailetara jaitea ahalbidetuko digu, eta horrela aurrera egin ahal izango dugu plantillen eta langileen egituren plangintzan eta erregularizazioan, eta era berean, kudeaketa prozesu arruntak normalizatzen joango dira.

Balantze honetan, azpiegituren arloan garrantzi

handiko bi ekimen aipatu nahi ditut bereziki. Osasun Zientzien arloari lotuta daude biak: Galdakao-Usansoloko ospitalearen atxikipena, elkartu gisa, Medikuntza gradua osorik euskaraz egitea ahalbidetu duena (onarpen bereiziaren sistema ezarrita); eta, Medikuntza eta Erizaintza Fakultaterako eraikin berriaren proiektua, Basurtuko ingurunean.

Gure unibertsitateko kideez haratago, Euskadin osasunaren sektorean diharduten pertsona guztiak jabetzen ziren ikasketa horiek azpiegituretan zuten atzerapenez. Osasun sektorea eta euskal gizarte osoa benetan eskatzen ari ziren egitasmo bat jarri dugu martxan. Medikuntza eta Erizaintza Fakultatearen eraikin berriak 59 milioi euroko inbertsioa izango du. Medikuntzako, Fisioterapiako eta Erizaintzako graduak hartuko ditu, eta bertan emango dira ere Osasun Zientzien arloko 7 master ofizial. 2024-2025 ikasturtean martxan egotea aurreikusten dugu. Lehenetsuneko eta ezinbesteko ekimen bati buruz ari gara. Badakigu eraikin berriak ez dituela konponduko Osasun Zientzien arloan dauden azpiegitura arazo guztiak, baina urrats erraldoi bat egingo dugu, lehendik zeuden beharrak aintzat hartzen baditugu.

Hori guztia egin ahal izan da, gure aurrekontua % 5,6 handitzeaz gainera, 2019-2022 aldirako Unibertsitate Plana sinatu dugulako Eusko Jaurlaritzarekin eta planaren 4 urteko indarraldian 1.350 milioi euroko finantzaketa bat jasoko dugulako. Publikoki eskertu nahi dut gure unibertsitateak azpiegituretan zuen behar handienetako bati emandako laguntza eta, horrekin batera, administrazio eta zerbitzuetako langileen 100 lanposturen finkapena, hori ere unibertsitate plan hori sinatzearen ondorioz lortu baita.

Agerraldi honetan, Euskal Herriko Unibertsitateak azken lau urteetan izandako mugarri nagusietako batzuk aipatu nahi izan ditut.

Alabaina, ezinezkoa zait mintzaldi hau amaitzea agintaldiaren azken aldia berariaz aipatu gabe, koronabirusaren pandemiak erabat (eta hasieran, era oso dramatikoan) baldintzatu baitu.

Pandemiak eta haren ondorioek, hala nola alarma egoeraren deklarazioak eta konfinamenduak, errotik eraldatu zuten irakaskuntza, ikerketa eta kudeaketa Euskal Herriko Unibertsitatean. Halako aldaketa bat, hain bat-batekoa eta sakona, ez da inoiz gertatu gure unibertsitatearen historian. Dena den,

baieztatu dezakegu, inolako zalantzarik gabe, unibertsitateko kideen erantzuna, oro har, bikaina izan dela.

Beste gizarte eta ekonomia sektore batzuetan gertatu zen modu berean, gurean ere pandemiak hankaz gora jarri zuen 2019-2020 ikasturteko plangintza. Berriro konfiguratu behar izan genituen milaka irakasgai, irakaskuntza emateko moduak eta horietarako euskarri teknikoak.

EHU edonondik plataformak irakaskuntza ez-presentziala emateko oinarriak finkatu zituen. Denbora tarte oso laburrean, tresnak egokitu eta prestakuntza ikastaroak eman ziren, irakaskuntza modalitate birtualera egokitzeko. Irakasleen eta ikasleen erantzuna azkarra eta eraginkorra izan zen. Gure baliabide telematikoen ahalmena garatu dugu, eta, aldi berean, hezkuntza presentziala baloratzen ikasi dugu, falta zitzaigun honetan.

Ikerketak ere eragin negatiboa pairatu du, alabaina UPV/EHUK jakintza sortzeko ahalmena duela erakutsi du, pandemiaren fenomeno hainbat ikuspegitatik lantzeko gai izan baita. Ikasturtearen irekiera ekitaldian, ikertalde ugari COVID-19ari lotuta lantzen ari diren ezin konta ahala arlo aipatu nituen, hala nola epidemiologia, ingeniarietza, fisioterapia, erizaintza, psikologia, baita filosofia ere; guztiak ere gertatzen ari zena interpretatzeko eta aurrez aurre genuen etsai biologikoa (eta soziala) hobeto ezagutzeko.

Eta ikerketarekin batera, UPV/EHUREn dibulgazio zientifikoaren beharra izan genuen, eta oraindik ere, pandemia egun hauetan, behar-beharrezkoa da. Akademiko askok, hedabideek hala eskatuta, informazio xehea eman zuten, beren espezializazioaren ikuspegitik, eta, historikoa izango den pandemia batek eragindako asaldura eta nahasmen egoera hartan, gakoak eman zituzten oraina hobeto bizitzeko, iragana hobeto ulertzeko eta etorkizuna hobeto prestatzeko.

Laster urte bat beteko da Txinatik birus ezezagun bati buruzko lehen albisteak iritsi zirenetik. Lehen tentaldiari jarraituz gero, adieraziko nuke jasan dugun eta jasaten ari garen pandemiak unibertsitate kudeaketaren emaitzak lausotu dituela errektoretza honen azken aldi. Baina ez da horrela izan, zintzotasunez uste dut ez dela horrela izan.

Zailtasunak topatu ditugu, zailtasun berriak, oso larriak zirenak pertsonen osasunari eragiten ziotelako; sekulako tamaina hartzen zuten,

jarduera akademiko osoa baldintzatzen zutelako eta erabat ezustekoak zirelako, ez baikenituen aurrekari hurbilak konponbideak lortzeko argibideren bat bilatzeko.

Uste dut Euskal Herriko Unibertsitatea egoera horri erabakimenez eta ausardiaz aurre egiteko gai izan dela. Eta hala esan dezaket erantzukizun hori, jakina, kolektiboa zelako eta emandako erantzunaren meritua ere kolektiboa izan delako. Salbuespen gutxi batzuekin, unibertsitateko kide guztiek (irakasle-ikertzaileak, administrazio eta zerbitzuetako langileak eta ikasleak) eraginkortasun izugarri handi batez egin diote aurre gure erakundeak bere historian jasan duen krisi handienetako bati.

Eta une honetan nagusitzen den sentimendua, oraindik ere lan asko geratzen zaigula jakinda, harrotasunarena da; harro, zuen guztien aurrean

gure unibertsitateko kide guztiek hain egoera zailean egindako esfortzu itzela baieztatzeko aukera izateaz. Eta harrotasun horri beste bat gehitzen diot orain, nire kontzientziara datorrena, errektoretza agintaldi hau amaitzear denean: gure unibertsitatean hain erantzukizun handia bete izanaren harrotasuna, horrek eskatu didan esfortzu eta sakrifizio guztiekin, baina baita ikasi dudan guztiarekin eta jarri dudan ilusioarekin ere.

Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordeko kideei eskertu nahi dizuet gure unibertsitateari, euskal gizartea eratzen dugun pertsona guztiena den unibertsitateari, eman diozuen tratua. Eta baita gaurko agerraldian eskaini didazuen arreta, eta orain, prest nauzue, zuen iruzkinak entzuteko eta beharrezkotzat jotzen duzuen informazioa emateko.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko azaroak 30



Universidad del País Vasco

Euskal Herriko Unibertsitatea

2020-2021 ikasturtea

UNIBERTSITATE PUBLIKOA ETA IKERTZAILEA

Euskal Herrian errotua

- Etikoki eta sozialki konprometitua
- Lidergo intelektualekoa
- Mundura irekita
- Shanghaiko ranking-ean munduko 301-400ko artean

2020 urteko aurrekontua

428 M€

CAMPUS ANITZEKO EREDUA

CAMPUSAK

3

SAILAK

84

FAKULTATEAK
eta
ESKOLAK

20



Gizarte aurreratu batentzat

Ikasleak:

44.000

Etengabeko prestakuntzan eta beste programa batzuetan dauden ikasleen kopurua:

+14.000

Graduko ikasleak:

%80 82 gradu gradu jakintza arlo guztietan

Masterrak eta doktoregoko ikasleak:

%17 102 master programa
66 doktorego programa

Irakaskuntza eta ikerketa lanpostuak:

4.450 Doktoreak %90tik gora
%60 inguru gaztelania-euskara elebidunak

Kontratupeko langileak:

1.200 Prestakuntza bidean dauden ikertzaileak: doktoreaurrekoak eta doktoreondokoak

Administrazio eta zerbitzuetako langileen postuak:

1.900





PRESTAKUNTZA

Ikasleak, gure izateko arrazoia

IKASTEGI ATXIKI BERRIAK

Elias Querejeta
Zine Eskola

Goi-mailako
Online Institutua

ESKAINITZA AKADEMIKOA: GRADUAK

Titulazio berriak eta erakargarriak:

3 GRADU
BERRI



Automobilgintzaren
Ingeniaritzako
Gradu duala



Adimen
Artifizialeko
Gradua



Haur Hezkuntzako
Gradua
(hirueleduna)

10 GRADU BIKOITZ
BERRI



*Double Bachelor's Degree in
Business and Economics.*

*(Ingelesez osorik eskaintzen
den lehena)*

- Ingeniaritza Mekanikoa + Ingeniaritza Elektroniko Industrial eta Automatikoa
- EAZ + Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritza
- Ingeniaritza Mekanikoa + EAZ
- Negozioen Kudeaketa + Lan Harremanak eta Giza Baliabideak
- Farmazia + Giza Nutrizioa eta Dietetika
- Double Bachelor's Degree in Business and Economics (Ingelesez osorik eskaintzen den lehena)
- Politika Zientzia eta Kudeaketa Publikoa + Soziologia
- Ikus-entzunezko Komunikazioa + Kazetaritza
- Kazetaritza + Publizitatea eta Harreman Publikoak
- EAZ + Zuzenbidea (Gipuzkoa)

10 GRADU prestakuntza dualerako Unibasq-en aitortza dutenak



- EAZko Gradua (Bizkaia eta Gipuzkoa)
- Automobilgintzaren Ingeniaritzako Gradua
- Prozesu eta Produktuen Berrikuntzaren Ingeniaritzako Gradua
- Industria Antolakuntza Ingeniaritzako Gradua
- Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua
- Kazetaritzako Gradua
- Ikus-entzunezko Komunikazioko Gradua
- Politika Zientziako eta Kudeaketa Publikoko Gradua
- Soziologiako Gradua
- Publizitate eta Harreman Publikoko Gradua

4 PASABIDE titulazio bikoitzak lortzeko

- Filologia <--> Euskal Ikasketak
- Euskal Ikasketak <--> Ingeles Ikasketak
- Filologia <--> Ingeles Ikasketak
- Haur Hezkuntza <--> Lehen Hezkuntza

3 TITULAZIO Unibasq-en nazioartekotze aitortza dutenak

- Ekonomiako Gradua
- Informatikaren Ingeniaritzako Gradua
- Haur Hezkuntzako Gradua

5 NAZIOARTEKO TITULAZIO BIKOITZ

Titulazio bikoitzeko akordioa:

- Ingeniaritza Elektronikoko Gradua (UPV/EHU) eta License Science pour L'Ingénieur - Parcours Ixeo- eta Ixeo masterra (Limogesko Unibertsitatea, Frantzia)
- Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua (UPV/EHU) eta Business Administration (Hochschule Mittweida-Alemania)
- Arkitekturaren Oinarrietako Gradua (UPV/EHU) eta Arkitekturako Estatu Diploma, master mailakoa (ENSAM-Montpellier-Frantzia)
- Kimikako Gradua, Kimika eta Polimeroak unibertsitate masterra edo Kimika Sintetiko eta Industrialak unibertsitate masterra (UPV/EHU) eta Diplôme D'Ingénieur - Grade de Master (UNISTRA, Estrasburgoko Unibertsitatea)
- Zuzenbideko Gradua (UPV/EHU) eta Abokatutza titulazioa (Universidad Santo Tomás, Kolonbia)

GRADUKO IZEN EMATEA

%14↑ graduko izen emateen kopuruan

GRADUKO MATRIKULA

%10↑ graduko lehen mailako matrikuletan

8 ERASMUS MUNDUS BERRI

Zigilu hori daramaten masterrak dituzten estatuko unibertsitateen artean, **lehen postuan**, Bartzelonako Unibertsitatearekin eta Bartzelonako Unibertsitate Autonomoarekin parekatuta

Erasmus Mundus Joint Master Degree in:

- Science in Marine Biological Resources
- Renewable Energy in the Marine Environment
- Innovative Microwave Electronics and Optics
- Materials for Energy Storage and Conversion
- Smart Cities and Communities
- Science in Environmental Contamination And Toxicology
- Language and Communication Technologies
- Marine Environment 2030



1 MASTER BERRI BAT



- **Fabrikazio Digitaleko Unibertsitate Masterra**
Master in Digital Manufacturing

3 MASTER prestakuntza dualerako Unibasq-en aitortza dutenak

Hiru Unibertsitate Master hauek:

- Sistema Txertatuen Ingeniaritza
- Multimedia Kazetaritz
- Fabrikazio Digitala-*Digital Manufacturing*



3 MASTER Unibasq-en nazioartekotze aitortza dutenak

Hiru nazioarteko Unibertsitate Master:

- Language Analysis and Processing
- Economics: Empirical Applications and Policies
- Kontrola Sare Elektriko Adimentsuetan eta Sorkuntza Banatuan/*Control in Smartgrids and Distributed Generation*

10 TITULAZIO BIKOITZ NAZIOARTEKO

Titulazio bikoitzeko akordioa:

- Eraikitako Ondarearen eta Eraikinen Birgaitzea, Zaharberritzea eta Kudeaketa Integrala unibertsitate masterra (UPV/EHU) eta Mastère Spécialisé Architecture & Patrimoine Contemporaine (ENSAM- Montpellier-Frantzia)
- Mekanikako unibertsitate masterra (UPV/EHU) eta Master in Materials and Engineering Science -MAGIS (ENSAM), Master in Knowledge Integration in Mechanical Production -KIMP (ENSAM), Master in Mechanics and Energy M&E (ENSAM) eta Engineer Degree (ENSAM, Frantzia)
- Telekomunikazioen Ingeniaritza unibertsitate masterra (UPV/EHU), Industria Ingeniaritza unibertsitate masterra (UPV/EHU) eta Master in Engineering (CEAS- Cincinnati Unibertsitatea -AEB)
- Industria Antolakuntzako Ingeniaritza unibertsitate masterra (UPV/EHU) eta Master d'Ingenieur Strato (ESTIA, Frantzia)
- Master Programme in Sociology of Law (UPV/EHU) eta Master Programme in Sustainable Development (Università Degli Studi di Milano, Italia)
- Gizarte Prozesuak eta Politika Ekonomikoak unibertsitate masterra (UPV/EHU) eta MBA Intermetro (Universidad Interamericana de Puerto Rico)
- Oinarrizko Eskubideak eta Botere Publikoak unibertsitate masterra (UPV/EHU) eta Zuzenbide Masterra (UNIRITTER, Alemania)
- Fabrikazio Digitala unibertsitate masterra (UPV/EHU) eta Master Integrated Engineering (DHBW, Alemania)
- Matematikako Gradua, eta Modelizazioa eta Ikerketa Matematikoa, Estatistika eta Konputazioa unibertsitate masterra (UPV/EHU) eta Licence de Mathématiques eta Mathématiques et Applications, parcours Mathématiques, Modelisation et Simulation parcours Méthodes Stochastiques et Informatiques (UPPA, Frantzia)
- Chemistry and Polymers unibertsitate masterra (UPV/EHU) eta Master Degree in Chemistry, track in Polymers Sciences (Université de Bordeaux, Frantzia)

MASTERREKO IZEN EMATEA

%14↑ masterreko izen emateen kopuruan

MASTERREKO MATRIKULA

%22↑ masterreko lehen mailako matrikula kopuruan

ESKAINNTZA AKADEMIKOA: ETENGABEKO PRESTAKUNTZA

45 BEREZKO TITULAZIO
BERRI

%74↑ BEREZKO
TITULAZIOEN
KOPURUA

IZEN EMATEA ETENGABEKO PRESTAKUNTZAN

2.000tik gorakoa izan da izen
emate kopurua

%148↑ izen emateak

MATRIKULA ETENGABEKO PRESTAKUNTZAN

%83↑ matrikula
kopurua

ESKAINNTZA AKADEMIKOA: DOKTOREGOA

%35↑ DOKTOREGO
PROGRAMETAKO
IKASLEEN KOPURUA

HEZKUNTZA BERRIKUNTZA



184 HEZKUNTZA
BERRIKUNTZARAKO
PROIEKTU
%53↑

2.417 Hezkuntza
berrikuntzarako
proiektuetan parte hartu
duten IRAKASLEAK
%101↑

Praktikak erakunde eta enpresetan:

- %20↑ eskaintza
- %24↑ enpresa eta erakunde kolaboratzaileen kopurua
- Graduko ikasle egresatuen %79k praktikak egiten ditu
- Masterreko ikasle egresatuen %58k praktikak egiten ditu

11.000 PRAKTIKA,
horietatik 7.500
curriculumekoak

Enplegarritasunari lotutako zeharkako gaitasunak graduetan eta graduondokoetan:

- Komunak izango diren zeharkako gaitasunen katalogoa definitu da
- 69 ikastaro zeharkako gaitasunei buruzkoak

4.500 IKASLE
ikastaroetan

EHUalumni proiektua sendotzea:

- 105 bikote **Mentoring** programan
- 27 pertsona, 20 herrialdetan eta 5 kontinenteetan **Cicerone** programan

7.209 kide daude
EHUalumnin

Ekintzaitzaren kultura:

- Oinarri teknologikoko 20 enpresa sustatu dira
- 9 junior enpresa berri sortu dira

%90↑ spin-offen
sarreran

Egresatuen laneratzea sustatzea:

- UPV/EHUko ikasle eta titulaziodunentzako I Enplegarritasun Plana (2020-2023)
- UPV/EHUren lehen bi **Enplegu Foroak**, 3 **campusetan**

255 enpresa
parte-hartzaile



850 lan eskaintza

1.400 curricula vitae
jasota

UNIBERTSITATE IKERTZAILEA

Ezagutza sortzea eta gizartera transferitzea

IKERKETAREN EGITURATZEA

- **Ikerketa Plana** (2019-2022)
- **6 ikertzaile prestigiodun** kontratatu dira
- **2 Nobel Saridun** kontratatu dira: Albert Fert eta George F. Smoot



George F. Smoot, 2006ko Fisikako Nobel sariduna



Albert Fert, 2007ko Fisikako Nobel sariduna

DOKTOREGO TESIAK

- 21 kontratu berri prestakuntza bidean dauden ikertzaileen deialdietan

400 TESI
urtean, batez beste

%48 nazioartekoak
%16 euskaraz (horien artetik
%58 nazioartekoak)

IKERKETAREN KULTURA SUSTATZEA ETA IKERTZAILE BERRIEI BABESA EMATEA

- 17 talde sortu berriren aitortza
- 47 laguntza eman zaizkie taldeei irakasle-ikertzaileak ikerketan hasteko edo ikerketari berriro ekiteko
- 84 sailen artetik 59 aurkeztu dira sailetan ikerketa sustatzeko deialdietara
- 32 proposamen aurkeztu dira proiektu handiak prestatzeko eta 78 ikertalde hartu dute parte horietan

- 520 pertsona berri sartu dira, ikertzaile nagusi gisa

137 PROIEKTU
daude emakume bat
%73↑ ikertzaile nagusi dutenak

IKERKETA EGITURAK

- Ikerketa egituren sendotzea: Fabrikazio Aeronautika Aurreratuko Zentroa, Plentziako Itsas Estazioa
- Hizkuntza Teknologiaiko Zentroa (HiTZ)

Ikerketa azpiegiturak

- 3 zientzia azpiegitura handi jarri dira martxan:
 - Micaela Portilla Zentroa
 - Martina Casiano Plataforma Teknologikoa
 - María Goyri Biologia Zentroa
- 18 milioi euro jasangarritasun eta ekonomikoa zirkularraren aldeko europar erronkekin bat datorren ikerketa ekipamendurako
- Animaliategia jarri da martxan, Gipuzkoako Campusean
- Leioako animaliategiren handitzea ekipatu da



Nazioartean erreferentziazkoak diren argitalpenenak jakintza adar guztietan

- %34 ↑ Web of Science-n indexatutako argitalpen zientifikoaren kopurua
- %172ko ↑ ADDI gordailu instituzionalean gordetako ekoizpen zientifikoa
- 280. unibertsitatea munduko gordailu instituzionalen artean

3.800↑ Web of Science-n indexatutako **ARGITALPEN ZIENTIFIKO**

Egitura sozioekonomikora hurbiltzea

- %50↑ kontratuak eta sarrerak, enpresa eta erakundeetarako ikerketa emaitzen transferentzian
- Bikoiztu egin da lehentasunezko patenteen urteko ekoizpena, 20ko langa gainditzera
- Laukoiztu egin da UPV/EHU sortutako teknologiak ustiatzeko lizentzia bidezko transferentzia: 50 lizentzia berri
- Babestutako 204 aktiboen % 38 enpresetara lizentziatu dira
- Oinarri teknologikoko 5 enpresa urtean
- 15 unibertsitate-enpresa ikasgela berri sortu dira

4.500 KONTRATU sinatu dira, 900 bezero erakunderekin

39M€ I+Gko eta zerbitzu teknologikoetako fakturazioan

Ezagutzaren transferentzia

- 153 dibulgazio artikulua argitaratuak Espainiako *The Conversation* plataforman, artikulua 2.712.966 aldiz irakurriak
- Espainiako *The Conversation* plataforman UPV/EHU da artikulua gehien argitaratu dituen estatuko unibertsitatea
- 609 akademiko eta hedabideetako 192 profesional Adituak-en
- Ikerketari buruzko 500 prentsa ohar urtean

ZIENTZIA ASTEA:

Euskadiko gazteen artean STEAMak bultzatzeko ekimen nagusia



IRAKASKUNTZAREKIN KONPROMETITUTAKO UNIBERTSITATEA

Prestakuntza jardueraren
gizarte aitortza

KALITATEZKO IRAKASKUNTZARI BALIO HANDIAGOA

- 1.864 irakaslek (+% 62) hartu dute parte irakaslana ebaluatzeko Docentiaz deialdian
- 37 irakasle taldek egituratu egiaztatuak IKDn
- Irakasleen irakaslanari buruzko ikasleen gogobetetasuna, batez beste, 4koa izan da 5etik doktoregoetan
- 218.000 iritzi baino gehiago urtean ia 5.200 irakasgairi buruz

Docentiaz programaren
kanpoko akreditazioa



GRADUONDOKO TITULAZIOEN BERRANTOLAKETA

- 87 unibertsitate master ikastegietara eraman dira
- Doktorego Eskola sortu da

TITULAZIOEN ETA IKASTEGIEN KALITATEAREN GESTIOAN

- Ikastegiko 12 akreditazio instituzional
- AUDIT-MGA zigilu bikoitza:
 - Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskolak
 - Zientzia eta Teknologia Fakultateak
 - Psikologia Fakultateak
- Doktorego Eskolaren Barne Kalitate Sistema egituratu da
- 705 pertsona prestatu dira lidergo eta kudeaketa aurreratuko roletan

Ikastegi akreditatu
gehien dituen
Estatuko unibertsitatea



AUKERA PROFESIONALAK ESKAINZEN DITUEN UNIBERTSITATEA

Pertsonak osatutako unibertsitatea eta pertsonak jomugatzat dituen

IRAKASLE-IKERTZAILEEN IBILBIDE AKADEMIKOAREN GARAPENA ETA PROMOZIOA (IIP)

- Plazen % 80 baino gehiago aldi baterako enplegua finkatzeko erabili dira
- 72 partaide irakasle berrientzako tutoretza programan
- 239 laguntza irakasleen garapen akademikorako

447 PLAZA

irakasle-ikertzaileentzako urteko lan eskaintza publikoko deialdietan

ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO PERTSONALAREN IBILBIDE PROFESIONALAREN GARAPENA (AZP)

- Lehen lan eskaintza publikoak lan kontratudun langileentzat
- Lan kontratudunen 77 plaza lan eskaintza publikoak 2016 eta 2017an
- 38 plazako LEP bat onartu zen, 2018an
- Langileen egonkortasuna hobetzea
- Programa kontratuen bidez finantzatutako 50 plaza eta 100 kontratu finantzaketa arruntera pasatuta eta lanpostuen zerrendan dagozkien plazak sortuta

635 PLAZA

2019an onartutako LEPean UPV/EHUko historian onartu den eskaintza handiena



BIZIKIDETZARAKO UNIBERTSITATEA

Unibertsitateko kideen bizitzaren kalitatea hobetzea

MEDIKUNTZA ETA ERIZAINTZA FAKULTATEAREN ERAIKIN BERRIA

Aurrekontu osoa

52M€-tik

gorakoa

Zabalik

2024-2025

ikasturtean

HARREMANAK SENDOTZEA INGURUKO ERAKUNDEEKIN

- 1.000 lankidetzak akordio baina gehiago sinatuak agintaldian

KULTURA ETA UNIBERTSITATEKO BIZITZA

- Diziplina anitzeko jardueren programazioa
- **EHU Orkestra Sinfonikoa** sortua
- 498 kultur ekitaldi antolatuta UPV/EHU agintaldian
- 1.500 kirol ekitaldi antolatuta UPV/EHU agintaldian
- Campus jasangarriak izateko estrategia orokorra





GURE INGURUAN ERROTUTAKO UNIBERTSITATEA

Konpromisoa euskal gizartearekin eta kulturarekin

IRAKASKUNTZA ESKAINTZAREN EUSKALDUNTZEA

- Graduak nahitaezko irakasgaien %98 euskaraz eskaintzen dira
- %53,9koa da lehen mailan euskaraz matrikulatutako ikasleen portzentajea
- Onarpen bereziaren sistema ezarri da Medikuntzako graduan
- 20 puntu igo da euskaraz eskainitako kredituen portzentajea Gurutzetako, Basurtuko eta Donostiako unibertsitate ospitaleetan
- Hirukoiztu da euskaraz eskainitako berezko titulazioen kopurua

Galdakao-Usansolo Ospitalea
unibertsitate-ospitale gisa

atxikitzea

euskarako eskaintza areagotuz

BIKAINASUNA LORTZEA EUSKARAZKO IRAKASKUNTZAN

- Irakasle-ikertzaileen %61ek gaztelania-euskara hizkuntza eskakizuna duen plaza bat betetzen dute
- Hizkuntza prestakuntzako programa berritzailea abian, non 247 irakaslek hartu duten parte
- Zuzenbide Fakultatearen Hiztegi juridikoa argitaratua

300 UNIBERTSITATEKO
TESTULIBURU
euskaraz

60 MATERIAL
didaktiko argitaratu
dira euskaraz

EUSKARAREN ERABILERA SOZIALA

- AZPko langileen 400 eskaera baino gehiago euskara ikasteko deialdietan
- Gradu ikasketetan euskararen egoera aztertzeke protokoloa landua
- AZPko langileen lan esparruan euskararen erabilera ezagutzeko azterlana landua
- 5 ikastegik Bikain ziurtagiria:
 - *Informatika Fakultatea*
 - *Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea*
 - *Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea*
 - *Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola*
 - *Farmazia Fakultatea*

+1.000 partaide euskararen erabilera bultzatzeko **AKTIBATU PROGRAMAN**

EUSKARAZKO EKOIZPEN ZIENTIFIKOA

- 5,5 puntu ↑ euskarazko doktorego tesien portzentajea
- 500 artikulua zientifiko baino gehiago argitaratu dira euskaraz zientzia aldizkarietan
- 700 doktore "Doktore Euskaldunak" datu basean

26↑ PUNTU igo da euskaraz egindako nazioarteko doktorego tesien portzentajea

EUSKAL ARTEAREN ETA KULTURAREN PRESTAKUNTZA, IKERKETA ETA HEDAPENA

- EHUkultura estrategia egin eta garatu da.
- 500 ekitaldi 30 gizarte eta kultura eragile baino gehiagorekin lankidetzan



Errektorea eta Gipuzkoako diputatu nagusi Markel Olano, **Joxe Azurmendi Katedra** sortzeko hitzarmena sinatzen



MUNDURA IREKITAKO UNIBERTSITATE BAT

Nazioartekotasuna unibertsitateko jarduerako eremu guztietan sartzea

ENLIGHT EUROPAKO UNIBERTSITAEEN SAREA

- Goi mailako nazioarteko 9 unibertsitate bazkide partzuergoan:
 - Bordeleko Unibertsitatea
 - Irlandako Unibertsitate Nazionala (Galway)
 - Bratislavako Comenius Unibertsitatea
 - Tartuko Unibertsitatea
 - Ganteko Unibertsitatea
 - Göttingeneko Unibertsitatea
 - Groningeneko Unibertsitatea
 - Uppsalako Unibertsitatea
 - UPV/EHU
- Horietariko 6 munduko 400 unibertsitate onenen artean daude eta hiru lehen 66ren artean, Shanghaiko sailkapenaren arabera.
- 5 milioi euroko babes, ENLIGHT partzuergorako deialdi zorrotz eta lehiakor batean
- Agenda partekatua etorkizuneko gizarte ongizaterako eta jasangarritasunerako giltzarriak diren bost erronketan oinarritutako hezkuntzari, ikerketari eta berrikuntzari buruz



UPPSALA
UNIVERSITET

emari to cabot razu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

GRADUONDOKO LATINOAMERIKAKO SAREA

- Batez beste 15 doktorego tesi urtean



PRESTAKUNTZA ESKAINTZAREN NAZIOARTEKOTZEA

- UPV/EHUren Prestakuntza Nazioartekotzeko Plana (2018-2022) egin da
- Graduako 841 irakasgai ematen dira hizkuntza ez-ofizialetan; horien artetik, 633 ingelesez, eta masterreko 367 irakasgai ere ingelesez
- %37 ↑ English Friendly Course (EFC) modalitatean eskainitako graduako irakasgaien kopurua
- Modalitate hori masterrera zabaldu da, non 60 irakasgai eskaintzen baitira

%26↑ ingelesez emandako graduako eta masterreko irakasgaien kopurua

HIZKUNTZA GAITASUNEN PRESTAKUNTZA ETA EGIAZTAPENA

- 1.330 irakasle akreditatu dira irakaskuntza hizkuntza ez-ofizialetan emateko
- 902 ikasle eta langilek beren maila egiaztatu dute *Cambridge*, *Certiuni* eta *British Council*en azterketetan
- %24 ↑ irakasleentzako ingeleseko B2 eta C1 maila eskuratzeko ikastaroetako portzentajea, 656 matrikula egin dira

%23↑ irakaskuntza hizkuntza ez-ofizialetan emateko irakasle akreditatuen portzentajea

EUROPAN ETA EUROPAN KANPOKO HERRIALDETAN IKASTEKO ETA PRAKTIKAK EGITEKO MUGIKORTASUNA

- 21 norako berri Latinoamerikan, eta 11, Beste Norako Batzuk programan
- %6 ↑ Nazioarteko ikasle bisitarien kopurua
- 180 beka kudeatu dira Global Training programan
- 327 pertsona joan dira beste unibertsitate batera, Erasmus IRI/AZP programaren bidez
- 424 pertsona etorri dira, Erasmus IRI/AZP programaren bidez
- 4.825 ikasle bisitariri harrera egin zaie Help Center-etan
- 1.200 parte-hartzaile baino gehiago Buddy programan
- %21,7 ↑ Espainiako hizkuntza eta kultura ikastaroetan parte hartzen duten ikasle bisitarien kopurua
- 1.000 ikasle bisitari baino gehiago Espainiako hizkuntza eta kultura ikastaroetan
- 240 ikasle bisitari euskara eta euskal kulturaren hastapeneko ikastaroetan

%13↑ atzerriko unibertsitate batera joan diren ikasleen kopurua

PARTAIDETZA ETA LIDERGOA EUROPAKO ETA NAZIOARTEKO IKERKETA PROIEKTUETAN

- 84 programa H2020-n: 23,77 milioi
- H2020 programaren Bikaintasun Zutabearen arrakasta finkatu da;
- 11 proiektu Societal Challenges zutabearen: nabarmentzekoa emakumeen lidergoa, ikertzaile nagusiak baitira proiektuen %58n
- AEBko finantzaketa duten hiru proiektu sinatu dira; bat osasunaren arloan (NIH) (369.000 dolar), eta beste biak Segurtasun eta Metrikaren arloan (Estatu Batuetako Estandarren Institutua) (763.000 dolar)


5 ERC
guztira 5,53M€

UPV/EHU ETA EUROESKUALDEKO ERAKUNDEEN ARTEKO LANKIDETZA EUSKAMPUSEN LAGUNTZAREKIN

- 6 Jakintza Guneak indartudira:
 - Data Sciences
 - Itsas Energia Berriztagarriak
 - Lurralde Jasangarriak eta Osasuntsuak
 - Osasun zientziak eta Teknologiak
 - Industria 4.0
 - Materiale Berriak
- 100 ikerlari 6 Jakintza Guneetan
- Mugaz Gaindiko 4 Kooperazio Laborategi:
 - **QuantumChemPhys** (Nanomaterialak)
 - **AENIGME** (Fabrikazio Aurreratua)
 - **TRANSMATH** (Matematikak eta bere aplikazioak)
 - **Green Concrete** (Hormigoizko eta zementuzko materialetako produkzio-prozesu jasangarriak)



Shanghaiko sailkapena



%2aren munduko unibertsitate onenetan

Center for World University Rankings

358 Center for World University Rankings-en (CWUR) munduko sailkapenean

%1,8aren maila goreneko unibertsitateetan munduan



GIZARTEAREKIN KONPROMETITURIKO UNIBERTSITATEA

Benetako zerbitzu publikoa

ANIZTASUNARI ERANTZUTEA

- Ikasleen ahotsak topaketen bi edizio egin dira, ezgaitasuna duten UPV/EHUko 31 ikaslek eta DBHko 27k hartu dute parte
- 38 ikasle Arrakasta programa aintzindarian, haurtzarora eta nerabezarora babesteko eta gizarte inklusioko sistemetan dauden gazteentzat baldintzak sortu nahi dituenak, unibertsitateara sartu eta ikasketak arrakastaz amai ditzaten
- Gipuzkoan haurtzarora eta nerabezarora babesteko sistemaren egoitzatan dauden 12 urtetik beherako 64 adingabe errefortzu akademiko jasotzen IkasLagun programan
- Matrikula ordaintzetik salbuetsita daude asiloa eskatzen duten, nazioarteko babesa duten edo aberrigabe diren pertsonentzat. Estatuan aukera hori eskaintzen duen unibertsitate bakarra da eta 25 errefuxiatu baliatu dute

GENERO ZEHARKAKOTASUNA/MAINSTREAMING UNIBERTSITATEKO JARDUNEAN

- Genero indarkerien aurkako Protokoloa diseinatu da: genero indarkeriako 52 kasuren harrera eta jarraipena
- UPV/EHUko emakume akademikoen lidergorako AKADEME programa: 156 pertsona bere edizioetan
- Berdintasun gaiei buruzko online prestakuntza unibertsitateko kide guztientzat: 3.936 pertsona, ikasleen %80 baino gehiago, hiru ikasturtetan
- Genero ez-binarioko markagailua edo laukia arian-arian jarri da barne dokumentazioan
- 134 komun mistoen errotuluak jarri dira UPV/EHUko ikastegietan, Ozen LGTB Ligaren lankidetzaz



EHUagenda 2030: UNIBERTSITATE JASANGARRI BAT

- Hiru plan sektorial: Berdintasun Campusa, Inklusio Campusa eta Planeta Campusa
- Adierazleen taula aitzindaria estatuan
- 828 artikuluko zientifikoko WOS eta Scopus-en, EHUagenda 2030ekin lerrokatutakoak
- Gradu Amaierako 186 lan, Bizia Lab Campus programaren barruan
- Nazioarteko eta diziplinarteko 43 GRAL, Ocean i3 programan
- 23 GRAL eta MAL, Gizarte Justiziarako Klinika Juridikoan
- GJHrekin lerrokatutako 117 GRAL aurkeztu dira UPV/EHUren Ikasleen Biltzarraren bi ediziotan: Gure Gradu Amaierako Lanek (GRAL) mundua eraldatzeko balio dute
- IKDi3 27 laborategi jarri ditugu martxan, eta 407 irakaslek hartu dute parte

BAKE ETA BIZIKIDETZA KULTURA

51 EKIMEN
+
18 KOMUNIKAZIO

antolatu ditu **EHUgune**-k
bakea eta bizikidetzak,
krisia eta Euskal Herria
2050 ardatz izanik

GARAPENERAKO LANKIDETZA

%15↑ boluntarioria
jardueretan

77.700 ordu pasatu dituzte
ikasleek boluntarioria
jardueretan

%133↑ Gaztenpatia
programaren
parte hartzea

GOBERNU ONA SUSTATZEN DUEN UNIBERTSITATEA

Unibertsitate hurbilekoa eta adeitsua, gobernu partizipatiboa, eraginkorra eta gardena duena



UPV/EHUren Plan Estrategikoa 2018-2021 egin da

e-ADMINISTRAZIOA

- Egoitza elektronikoa berria, zerbitzuetarako tramitatzailerik bat duena

GARDENTASUNA UNIBERTSITATEKO JARDUERETAN

- UPV/EHUko gardentasun atariaren hobetzea eta zabaltzea
- Gardentasun maila nabarmen hobetu da
- 10. postuan Konpromiso eta Gardentasuna Fundazioaren sailkapenean

UNIBERTSITATEKO EGITURAK

- Ikastegi berrantolaketa finkatu da
- Sailak berrantolatu dira, 110 saileko egitura batetik 84 saileko batera igarota

KONTABILITATE ANALITIKOKO SISTEMA

- 2014ko ekitaldiari dagokion kontabilitate analitikoaren lortutako datuak aztertu eta araztu dira